



Oroitzapenezko ekintzak eta  
biktimen aitortza sustatzen  
laguntzeko udalei eskaintzen  
zaien agiri informatiboa

---

Euskal kasuan izandako  
**bizitzeko eskubidearen  
aurkako urraketen  
argazkiak, herriz herri**

---

**Bilbo, 1960-2010**

---

(Bigarren edizioa)

**2016ko azaroa**

---

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizkidetzarako  
Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA  
Secretaría General para la Paz  
y la Convivencia  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos



Oroitzapenezko ekintzak eta  
biktimen aitortza sustatzen  
laguntzeko udalei eskaintzen  
zaien agiri informatiboa

---

Euskal kasuan izandako  
**bizitzeko eskubidearen**  
**aurkako urraketen** argazkiak,  
**herriz herri**

---

**Bilbo**, 1960-2010

Bigarren edizioa

**2016ko azaroa**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA  
Secretaría General para la Paz  
y la Convivencia  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos



## Aurkibidea

Aurkezpena.	6
-------------	---

---

### I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**.

1. ETA, ETApn, ETAm eta Komando Autonomoek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak.	11
2. GAL, BVE eta Triple Ak bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak.	85
3. Segurtasun-indarrek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak.	95
4. Egiletza argitu gabe duten urraketak eta bestelakoak.	103

---

### II. Behar beste argitu ez diren **kasuak**.

	107
--	-----

---

Erabilitako iturri eta zerrendak.	115
-----------------------------------	-----

---

---

## Aurkezpena

---

2015eko irailaren 4an, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak jendaurrean aurkeztu zituen “Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri (1960-2010)” izeneko dokumentuak. Guztira, 130 liburuxka dira, beste horrenbeste udalerriri buruzkoak. Ekitaldia egin zen Gogora – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren egoitzan, Iñigo Urkullu buru zela, eta, han, liburuxka hauek banatu zitzaizkien alkateei.

*Erretratu* bakoitzak 1960 eta 2010 bitartean herri bakoitzean gertatu diren indarkeriazko heriotzen inguruan dagoen informazioa ematen du; betiere euskal kasuarekin lotuta dauden edo egon daitezkeen heriotzei buruzkoa. Helburua da memoriari buruzko udal-politika sustatzeko informazioa ematea, eta biktimengana eta haien senitartekoengana hurbiltzea. Egia esan, berehalakoan nabaritu zen dokumentu horiek udalen esku utzi izanaren eragina. Izan ere, 2014arekin alderatuta, laukoiztu egin zen 2015eko azaroaren 10ean Memoriaren Eguna ospatu zuten udalen kopurua.

Lehen edizio haren aurkezpenean argi adierazi zenez, bildutako kasuetatik gehienetan, dagoen informazioa bat dator eta nahikoa da. Dena den, kasu batzuei buruz, batez ere hirurogeiko hamarkadan, hirurogeita hamarreko hamarkadan eta laurogeiko hamarkada oso hasita zegoen arte izandakoetan, ez dago nahikoa informaziorik edo bertsio kontraesankorrek eta datu nahasgarriak agertzen dira; horrenbestez, oraindik ezin da azken ondorioa atera. Alde horretatik, beraz, azpimarratu zen lan hori ezin zela behin betiko amaitutzat eman, eta zabalik zegoela osatuz joateko.

Aurkezpena egin zenetik, ekarpen eta kontsulta ugari egin dituzte eraginpekoek, udalek zein herritarrek. Eta ohar horiei esker, asko hobetu da hasierako dokumentua. Hala, hartutako konpromisoa garaiz bete ahal izan da, eta prest da bigarren edizioa: 2016ko azarotik, udalen esku da, eta herritarrek ere eskura dezakete Gogoraren eta Bakegintza eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusiaren weguneetan.

Data horretatik aurrera eta bi webgune horietan, beste informazio-gune bat ireki da, “Aitortutako biktimak” izenburupean: informazio zehatza ematen du lege-arau baten babesean errekonozitu diren biktimei buruz. Terrorismoaren biktimei dagokienez, 1960tik aitortutako kasuak biltzen ditu, biktimei erreparazioa egiteko onartu diren legeak oinarritzat hartuta: 29/2011 Legea, 32/1999 Legea (Estatuko araudia) eta 4/2008 Legea (araudi autonomikoa). Funtzionario publikoek bizitzeko eskubidea urratu dieten biktimei dagokienez, 107/2012 Dekretuak aitortutako kasuak jaso dira, 1960tik 1978ra bitartekoak.

*Aitortutako biktima* horiez gain, badira aitortzeke dauden biktimak ere. Horietako asko datozen urteotan uztailaren 28ko 12/2016 Legea garatu zain daude: Eusko Legebiltzarrean onartu berri da, Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko. Beste kasu batzuk, berriz, ez daude argi ikerketarik egin ez zelako, bertsio kontrajarriak daudelako, urraketak nork edo zergatik egin zituen argi ez dagoelako edo ebazpen judizialaren zain daudelako.

Puntu honetan, beraz, bi datu-baseak elkarren osagarri dira. “Aitortutako biktimak” izeneko gunean, lege baten babesean aitortpena jaso duten biktimei buruzko informazioa biltzen da. *Udal-erretratuak* ez dira biktimei errekonozimendu ofiziala emateko agiri ofizialak, informazioa ematekoak baino. Zerrenda horretan, aitortutako biktimei buruzko informazioa ematen da, batetik, eta prozedura judizial bidez edo lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez aitortpena jaso zain dauden biktimena ere bai, bestetik.

60/147 Ebazpena da nazioarteko zuzenbideak biktimei zuzendutako politikak egiteko duen bitartekorik garrantzitsuen; Nazio Batuen Batzar Nagusiek onartu zuten, 2005ean. Ebazpen horren 9. artikuluan berariaz jasota dago pertsona bat biktimatzat hartuko dela, alde batera utzita kasua judizialki erabat argitu den ala ez. Horrela izan ez balitz, terrorismoaren edo bestelako indarkerien biktimak ezin izango lirateke biktimatzat hartu, baldin eta kasu horiek epaitu edo argitu gabe baleude, eta, ildo horretatik, ezin izango litzateke erreparaziorik egin errekonozimendu-lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez.

Ez dira sartu *Udal Erretratu* hauetan nazioarteko zuzenbidearen estandar horien arabera bizitzeko eskubi-dearen urraketatzat hartu ezin daitezkeen kasuak, gertatutako unean zegoen indarkeria testuinguruarekin lotura zuzena izanik ere. Hor sartzen dira suizidioak, istripuak, indarkeriazko ekintza batean gertatutako heriotzak, polizia-kidegoen artean egindako ustekabeko tiroak...

Oinarri horien gainean, *Udal Erretratuak* egiteko, biktimei buruz argitaratuta dauden zerrenda guztiak aztertu dira: Barne Ministerioak, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, biktimen elkarteek, komunikabideek zein egile partikularrek egindakoak. Udalerrri bakoitzeko liburuxkan sartu dira hala bere lur-eremuan izan diren biktimak, nola, ekintza bera beste nonbait gertatuta ere, herri horretakoak diren edo bertan bizi diren biktimak.

Bi ataletan egituratu da edukia: lehenengoan, bizitzeko eskubidearen urraketa nahikoa frogatutaz da goen kasuak jasotzen dira, egileen eta hurrenkera kronologikoaren arabera antolatuta. Bigarrean, berriz, nahikoa argitu ez direla-eta kalifikazio hori behin betiko baietsizat ezin eduki dezaketen kasuak biltzen dira.

EAEko udalek adierazitako behar batetik sortu zen lan hau; izan ere, memoria-ekitaldiak sustatzeko orduan, ez zuten nahikoa informazio udalerrian izandako biktimei buruz. Dokumentu honek tresna erabilgarria izan nahi du udal-arduradunek memoriari buruzko proiektuak egiteko orduan herriko informazio guztia eskura izan dezaten.

Azken batean, iraganean nozitutako terrorismoaren eta indarkeriaren aurrean memoria kritikoa bultzatzeko betebeharrak instituzionalari erantzutea da kontua. Biktimen oroimena bizirik iraunarazteko memoria, eta orainaldian eta etorkizunean giza eskubideekiko behin betiko konpromisoa helarazten duena, bereziki, bizitzeko eskubidearen eta pertsonen duintasunaren errespetuarekiko konpromisoa.

Garrantzitsua da argi izatea memoriaren politika publiko baten helburua ez dela *omenaldiak* egitea. Bi helburu nagusi ditu, eta zentzu sozial eta politiko sakonagoa dute helburu horiek: biktimei dagokienez, gertatutakoa gogoraraztea, jasan zuten bidegabekeria aitortzea, eta haienganako elkartasuna adieraztea beste behin ere, eta, gizarteari dagokionez, berriz, gogoeta kritikoa sustatzea iraganean gertatutakotik berriz ere gertatu behar ez duenaz hausnartzeko, edo, aitzitik, gertatutako horretatik azpimarratu behar denaz hausnartzeko.

Liburuxka hauetako bakoitza berriz ere gertatu behar ez duenaren eta ahaztu behar ez denaren erretratu da. Dokumentuaren izenburuan *erretratua* hitza jasotzen da, erretratuak gizakiaren irudia erakusten duelako; aurpegia, begiak eta espresioa dituelako. Erretratuak pertsona jakin bat irudikatzen du; izen, abizen, familia, lagun, istorio, amets eta proiektuak dituen pertsona jakin bat. Biktimen sufrimendu bidegabekia hezur-mamitzen duten aurpegiaren erretratua duzu dokumentu hau.





---

# I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

---



---

# I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

---

## 1. **ETA, ETApm, ETAm** eta **Komando Autonomoek** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

---

1

# Fermin Monasterio Perez

---

**Data:** 1969/04/09.

**Adina:** 38 urte.

**Non jaioa:** Burgos.

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Hiru alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Taxilaria.

**Egilea:** ETAk egina, zatiketaren aurretik.

**Heriotza-lekua:** Arrigorriaga.

**Prozedura:** Su-armaz tirokatuta.

**Datu gehigarriak:** ETako kide zen Mikel Etxebarria Iztueta Artekaleko (Bilbo) polizia-operaziotik zaurituta iheska ari zen. San Anton merkatuko taxi-paradan Fermín Monasterio taxilaria mehatxatu eta Bilbotik ateratzera behartu zuen. Biktima hiru tiroz hil-hurren aurkitu zuen, Arrigorriagatik hurbil (Bizkaia), beste taxilari batek. Basurtun ospitaleratu zuten arren handik gutxira hil egin zen. Ibilgailua Orozkon utzita agertu zen (Bizkaia). ETaren lehen biktima zibila izan zen.

# 2

## Martin Duran Grande

---

**Gertakarien data:** 1974/09/11.

**Heriotzaren data:** 1974/09/15.

**Adina:** 21 urte.

**Non jaioa:** Portugalete (Bizkaia).

**Bizilekua:** Erandio (Bizkaia).

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia Zibila.

**Egilea:** ETA (zatiketaren aurretik).

**Heriotza-lekua:** Bilboko Areilza doktoarearen kalea.

**Prozedura:** Atxiloketa bat egiteko unean, bi aldeen artean izandako tiroketa.

**Datu gehigarriak:** Polizia-operazioan Juan Jose Urzelai Imaz ETako kidea ere hil zen. Tiroketan beste ETako kide bat, bi polizia-agente eta Andre Villamore Silva de Touro emakumea zauritu ziren.

# 3

## Fernando Llorente Roiz

---

**Data:** 1975/05/07.

**Adina:** 51 urte.

**Non jaioa:** Villanueva de Villaescusa (Kantabria).

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Hiru alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia-inspektorea. Aurretik 091ko burua izan zen eta NANak egiteko bulegoetan ere aritu zen.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bilboko Calixto Diez kalea.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 4

## Javier Ybarra y Berge

---

**Bahiketaren data:** 1977/05/20.

**Gorpua aurkitu zuten data:** 1977/06/22.

**Adina:** 64 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Bizilekua:** Neguri (Getxo, Bizkaia).

**Seme-alabak:** Sei seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Abokatu, industrialaria eta politikaria. Bizkaiko Foru Aldundiko presidentea (1947-1950), Bilboko alkatea (1963-1969), Gorteetako prokuradorea (1947-1969) eta enpresaria. 1939tik El Diario Vascoren kontseilari-ordezkarri eta El Correo Español-El Pueblo Vascoren presidente izan zen.

**Egilea:** ETApn.

**Gorpua azaldu zen tokia:** Barazarko gaina (Zeanuri).

**Prozedura:** Neguriko etxean bahitu zuten. Gorpua, buruan tiro egin eta gero, Barazarko gainean abandonatu zuten.

# 5

## Francisco de Asis Liesa Morote

---

**Data:** 1978/10/03.

**Adina:** 56 urte.

**Non jaioa:** Bartzelona.

**Destinoa:** Bilboko Itsas Komandantzia.

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Industria-ingeniarria. Bilboko Itsas Komandantziako bigarren burua eta Korbeta-kapitaina.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bere etxean, Bilboko Amadeo Deprit kalean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.



# 6

## Elias Garcia Gonzalez

---

**Data:** 1978/10/13.

**Adina:** 21 urte.

**Non jaioa:** Fuenterroble de Salvatierra (Salamanca).

**Destinoa:** Polizia Armatuko Bosgarren konpainia, Bizkaian basea zuena.

**Seme-alabak:** Bi hilabeteko alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia armatuko kidea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bera zetorren jeep-a Santa Marina erietxe ondoko mendi bateko hainbat tokitatik tirokatu zuten.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Ramon Muiño Fernandez eta Jose Benito Diaz Garcia polizia-agenteak ere atentatu berean hil ziren.

7

# Ramon Muiño Fernandez

---

**Data:** 1978/10/13.

**Adina:** 30 urte.

**Non jaioa:** Valella (Lugo)

**Destinoa:** Bilbo. Hirugarren Konpainia.

**Bizilekua:** Santutxu (Bilbo).

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Armatuko kidea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bera zetorren jeep-a Santa Marina erietxe ondoko mendi bateko hainbat tokitatik tirokatu zuten.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Elias Garcia Gonzalez eta Jose Benito Diaz Garcia polizia-agenteak ere hil ziren atentatu berean.

# 8

## Jose Benito Diaz Garcia

---

**Atentatuaren data:** 1978/10/13.

**Heriotzaren data:** 1978/10/25.

**Adina:** 27 urte.

**Non jaioa:** Porís de Abona (Tenerife).

**Destinoa:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Armatuko kidea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bilboko ospitalean, atentatua izan eta handik hamabi egunera. Bera zetorren jeep-a Santa Marina erietxe ondoko mendi bateko hainbat tokitatik tirokatu zuten.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Elias Garcia Gonzalez eta Ramon Muiño Fernandez polizia-agenteak ere hil ziren atentatu berean.

# 9

## Jose Maria Maderal Oleaga

---

**Data:** 1979/03/16.

**Adina:** 48 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Iberdueroko langilea. Bizkaiko Hermandad de Antiguos Caballeros Legionarios elkarteko presidentea. Ermandadearen El Legendario tabernaren arduraduna zen.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Urazurrutia kalea, Bilbo Zaharrean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 10

## Julian Ezquerro Serrano

---

**Data:** 1979/09/19.

**Adina:** 39 urte.

**Non jaioa:** Pradejon (Errioxa).

**Destinoa:** Hamabost egun zeramatzan Bizkaiko Gobernu Militarrean.

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Infanteria-komandantea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bere ibilgailua tirokatu egin zuten Garellanoko Infanteria kuarteletik Gobernu Militarrera zihoala.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Aurelio Perez-Zamora, Zalditeria-koronela, ere atentatuan hil zen eta Gustavo Perez, soldadu gidaria, zauritu egin zuten bizkarrean tiro bat emanda.

11

# Aurelio Perez-Zamora Camara

---

**Data:** 1979/09/19.

**Adina:** 59 urte.

**Non jaioa:** Santa Cruz de Tenerife (Kanariar Uharteak).

**Destinoa:** Urte horretako uztailaren 23tik zegoen Bilboko Gobernu Militarrean.

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Zalditeria-koronela.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Basurtoko ospitalean, Garellanoko Infanteria kuarteleetik Gobernu Militararrera ko-txez zihoala zauritua izan eta gero.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Julian Ezquerro Infanteria-komandantea ere atentatuan hil zen eta Gustavo Perez, soldadu gidaria, zauritu egin zuten bizkarrean tiro bat emanda.

# 12

## Juan Manuel Roman Moreno

---

**Data:** 1980/01/27.

**Adina:** 23 urte.

**Non jaioa:** Rota (Cadiz).

**Destinoa:** Poliziaren Erreserbako Konpainia Nagusia, basea Logroñon zuena.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Basauriko koartelera itzultzen ari zen Polizia Nazionalaren konboi batean zegoen, Malmasingo tuneleko sarreratik hurbil.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Bost Guardia Zibil zauritu zituzten atentatuan. Evaristo Añeiros Castro, Eustaquio Calzada, Jose Quintero, Jose Marin eta Jose Luis Moreno.

# 13

## Enrique Aresti Urien

---

**Data:** 1980/03/25.

**Adina:** 62 urte.

**Non jaioa:** Gordexola.

**Bizilekua:** Bilboko On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia.

**Seme-alabak:** Bost seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** La Unión y el Fenix aseguru-etxeko zuzendariordea. Maura y Aresti ontzi-kontsignatario agentziako zuzendari-kudeatzailea. Arestiko kondea. Emakumea Babesteko Patronatuko presidentea. Karitatearen Bizkaiko Elkarteko kide.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** La Unión y el Fénix aseguru-etxeko egoitzaren eskailera-buruan, Bilboko Areatzan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.



14

# Antonio Moreno Nuñez

---

**Data:** 1980/05/09.

**Adina:** 24 urte.

**Non jaioa:** Cortes de la Frontera (Malaga).

**Destinoa:** Santurtziko polizia-etxea (Bizkaia).

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Kotxez zihoan Santurtziko Cervantes kaletik.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

15

## Ramon Baglietto Martinez

---

**Data:** 1980/05/12.

**Adina:** 42 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Bizilekua:** Azkoitia (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba, Pilar Eliasekin.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Altzari-denda bateko arduraduna zen Elgoibarren (Gipuzkoa). Azkoitiko zinegotzi ohia. Unión del Centro Democrático alderdiko militantea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Azkarateko gaina, Elgoibartik Azkoitirako noranzkoan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 16

## Tomas Sulibarria Goitia

---

**Data:** 1980/06/03

**Adina:** 27 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Banco de Vizcaya-ko langilea izan zen. ETako kidea. ETak 1975az geroztik segurtasun indarren infiltratua izatea eta bi komandoren atxiloketa ahalbidetzea egotzi zion.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bilboko Alde Zaharreko Posta kalea.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** ETak 1978ko abuztuaren 30ean, Mundakan, lehenengo atentatua egin zuen haren aurka eta larri zauritu zuen.

17

# Jose Pablo Garcia Lorenzo

---

**Data:** 1980/06/19.

**Adina:** 25 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Bizilekua:** Amorebieta-Etxano.

**Seme-alabak:** Hilabeteko alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Udal langilea Zornotza-Amorebietako Udalean (Bizkaia).

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Amorebieta-Etxanon, San Migel kaleko bere etxetik gertu.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 18

## Ramon Coto Abad

---

**Atentatuaren data:** 1980/09/29.

**Heriotzaren data:** 1980/10/02.

**Adina:** 71 urte.

**Non jaioa:**

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Bi seme.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Erretiroa hartuta. Bilbo erdiko estanko batean laguntzen zuen, adiskidea zelako.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bilboko ospitalean. Bertan ingresatu zuten Bilboko Nafarroa kaleko estanko batean zegoela su-armaz zauritu eta gero.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Callejaren eta Sánchez-Cuencaren *La derrota de ETA* liburuak eta Carmen Tellezek bat egin zuten "ETAk jomuga erratu zuela" esanez. Estankoa Alianza Popular alderdiaren hurbileko eta ETAk askotan mehatxatutako Jose Luis Ramosena izan zen lehenago. ETAk bere gain hartu zuen atentatua Zuzen 79an eman zuen zerrendan eta VascoPress-ek Crónican jaso zuen 2004ko abuztuan.

# 19

## Jose Maria Perez Lopez de Orueta

---

**Data:** 1980/10/31.

**Adina:** 30 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Bizilekua:** Donostia (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Abokatu kriminalista.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Amaren aurrean bahitu zuten Donostiako bulego-etxean eta gero Hernaniko Ereñozu auzora eraman zuten; han galdekatu egin zuten eta, ondoren, buruan tiro egin zioten.

**Prozedura:** Su-armaz hil zuten bahitu eta galdekatu ondoren.

# 20

Jose Luis  
Oliva  
Hernández

---

**Data:** 1981/01/14.

**Adina:** 31 urte.

**Non jaioa:** Santander.

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Seme-alabarik ez.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Pertsianak konpontzen zituen langile autonomoa. Antza denez, ETako kidea zen eta erakunde horrek infiltratua izatea egotzi zion.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Sodupeko (Bizkaia) kanpoaldeko eremu batean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 21

## Jose Maria Ryan Estrada

---

**Bahiketaren data:** 1981/01/29.

**Gorpua aurkitu zuten data:** 1981/02/06.

**Adina:** 39 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Bost seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Lemoizen eraikitzen ari ziren zentral nuklearrean ingeniari-burua. Iberduero enpresako langilea hamabost urtez.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Zaratamoko kanpoaldeko auzo-bide batean agertu zen bere gorpua, Galdakotik hurbil (Bizkaia). Eskuak esparatrapuz lotuta zeuzkan eta begiak bendaz estalita.

**Prozedura:** Bahiketa eta su-armaz egindako tiroketa.

**Datu gehigarriak:** Hilketaren aurka protesta egiteko greba orokorra deitu zuten otsailaren 9an eta Bilbon, Donostian eta Gasteizen manifestazio oso jendetsuak egin ziren.



# 22

## Jose Luis Raimundo Moya

---

**Data:** 1981/03/05.

**Adina:** 57 urte.

**Non jaioa:** Irurtzun (Nafarroa).

**Bizilekua:** Bilbo.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia komisarioa eta Bilboko Santiago polizia-etxearen buru. Zuzenbidean lizentziatua. Medikuntzan eta Kirurgian diplomaduna.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bilboko ospitaleko ebakuntza-gelan hil zen, Bilboko Deustu auzoan buruan jasotako tiroak eragindako zauriengatik.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

23

# Ramon Romeo Rotaèche

---

**Atentatuaren data:** 1981/03/19.

**Heriotzaren data:** 1981/03/21.

**Adina:** 52 urte.

**Non jaioa:** Burgos.

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Sei seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Eraikuntza eta egituren kalkulu-teknikari. Armadako teniente koronela eta Bizkaiko Gobernu Militarreko erreklutamendu eremu-buru.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bilboko Virgen Blanca klinikan, Begoñako basilikan meza irteeran zauritua izan ondoren.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 24

## Francisco Frances Garzon

---

**Data:** 1981/04/09.

**Adina:** 28 urte.

**Non jaioa:** Sevilla.

**Destinoa:** Erreserba Nagusiko XIX. Konpainia, basea Granadan zuena.

**Seme-alabak:** Bi alaba, eta emaztea haurdun zegoen.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bi patruila-auto metrailatu zituzten Bilbon, Begoñako sarreran, errepide-kontrol bat jartzera zihoazenean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Bi polizia zauritu ziren: Antonio Muñoz eta Antonio Prado.

# 25

## Angel Pascual Mugica

---

**Data:** 1982/05/05.

**Adina:** 44 urte.

**Non jaioa:** Mâcon, Borgoinako eskualdea (Frantzia). Bertara erbesteratu ziren gurasoak Sartagudan errepublikaren alde jardun zirelako. Antoniok hamar urte zituela berriro ere Sartagudara itzuli ziren eta, gero, Bilbora joan ziren.

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Hiru alaba eta seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ingeniaria. 1980az geroztik, Iberduero eraikitzen ari zen Lemoizko zentral nuklearreko programen zuzendaria.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Hamazazpi urteko semea autobus-geltokira zeramanean, bere ibilgailu barrura tiro eginda hil zuten, Bilboko Pedro Cortes kalean. Bizkartzainak atzeko autoan zihoazen.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Semea arin zauritu zuten esku batean. Lemoizko zentral nuklearraren Kudeaketarako Elkartearen eratzeko sinatze-egun berean izan zen atentatua. Lemoizko goi-teknikariek uko egin zioten baldintza horietan lanera itzultzeari.

# 26

## Luis Manuel Allende Porrua

---

**Bahiketaren data:** 1982/06/01eko 16:00ak.

**Askapenaren data:** 1982/06/10eko 02:00ak.

**Kirurgia-operazioaren data:** 1982/12/06.

**Heriotzaren data:** 1983/02/20.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Estomatologoa. Odontologoaren Elkargo Ofizialeko lehendakariorde izan zen 1971 eta 1975 artean eta UPV-EHUko Estomatologia Unibertsitate-eskolako Protesi katedran egon zen 1979tik.

**Egilea:** ETApm.

**Prozedura:** Bahitu eta gero, Bediako hilerri ondoan askatu zuten. Bahiketa ETApm VIII. Asanbladak burutu zuen eta zortzi egun geroago askatu zuten. Allende bahiketa jasan eta handik 8 hilabetera hil egin zen, 1983/02/20an, minbizia zuelako ebakuntza egin ondoren.

**Datu gehigarriak:** Luis Allende ez da ETAk hildako biktimen zerrenda guztietan azaltzen, ez delako frogatu kausaren eta ondorioaren arteko loturarik. Esate baterako, *La derrota de ETAn*, Calleja eta Sanchez-Cuenca, 2006, irakurri daiteke “mediku-dentistak, gerora, familiak bahiketari egotzi zion minbizia garatu zuela. Epailleek, ordea, hildakoa ez zela ETAn biktima erabaki zuten”. Gauzak horrela, ez zuten kasua beren zerrendan sartu, nahiz eta adierazi “AVTren eta Eusko Jaur-laritzaren zerrendek ETAn biktimatzat” jotzen dutela. Litekeena da autore horiek bahitzaileen kontrako Auzitegi Nazionalaren 1985eko epaiaren erreferentzia izatea. Epai horren arabera, “ez dago ziur esaterik Luis Manuel Allenderen heriotza bere askatasun-gabetze epearekin lotuta egon zitekeenik” (*Vidas Rotas*, 401. or.). Baina 1988/02/07ko ABCn eta *Vidas Rotas* (2010) argitalpean bertan ere bai, ebazpen berri bat aipatzen da, Teodoro Sarmiento titular zuen Bilboko Lehenengo Instantziako 3. Auzitegiak hartutakoa. Ebazpen horretan esaten denez, biktima bahiketaren ondorioz “hasi zen minbizia garatzen” eta, beraz, aseguruaren konpentsazio-partzuergoak sendiari 30 milioi ordaindu beharra ezarri zuen “adituek egiaztatu zutelako bahiketak iraun zuen bitartean jasan zuen estres bortitz egoera izan zela minbiziaren oinarria” (ABC). Espainiako Barne Ministerioak biktima gisa aitortu zuen.

27

## Daniel Henriquez Garcia

---

**Data:** 1982/06/03.

**Adina:** 64 urte.

**Non jaioa:** Margo de Atajo (Leon).

**Bizilekua:** Bilbo, nahiz eta Iruñeko panteoi militarren ehortzi zuten.

**Seme-alabak:** Lau seme-alaba lehen ezkontzakoak eta bigarren ezkontzako alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Erretiroa hartua zuen Armadako Infanteria-koronela.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bi tiro jaso zituen bere etxe-atarian, Bilboko Deustu auzoko Andaluzia kalean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** 1979an bera bahitzen saiatu ziren.

# 28

## Cesar Uceda Vera

---

**Atentatuaren data:** 1982/10/21.

**Heriotzaren data:** 1982/11/27.

**Adina:** 48 urte.

**Non jaioa:** Andujar (Jaen).

**Bizilekua:** Bilbo, hara joan aurretik Donostian bizi izan zen (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Bederatzi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Enpresaria. Matematika irakaslea. Armadako tenientea, musikarien kidegokoa, Garellanoko (Bilbo) destakamentuko zuzendariordea. Musikologoa. Leioako Udal Kontserbatorioko musika irakaslea, kontserbatorioa sortzen lagundu zuen.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Madrilgo ospitale batean, Basurtotik hara eraman zuten segurtasun neurriak zirela-eta. Hogeita zazpi egun lehenago sei tiro jaso zituen autoan lanera zihoala, bere etxetik gertu.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

29

## Ramon Iturriondo Garcia

---

**Data:** 1983/02/05 (ABC 1983/02/06).

**Adina:** 43 urte.

**Non jaioa:** Villabona.

**Bizilekua:** Santutxu, Bilbo.

**Seme-alabak:** Lau seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** BBVren Bilboko egoitza nagusiko atzerriko moneta-saileko kutzazaina. Herri Batasunaren jarraitzailea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bilboko BBVn bonba leherrarazita.

**Prozedura:** Bonba leherrarazita egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Egun horretan bertan beste langile bat hil zen: Anibal Alfonso Izquierdo Emperador. Bi egun geroago, hirugarren langilea: Benicio Alonso Gomez. Beste sei langile zauritu zituen leherketak. Bonba-abisua pasa zen, baina ez zen eraikina husteko astirik izan. ETAm-k atentatuaren autokritika egin zuen eta LABek bat egin zuen greba orokorraren eta manifestazioen deialdiekin.



# 30

## Anibal Alfonso Izquierdo Emperador

---

**Data:** 1983/02/05.

**Adina:** 48 urte.

**Bizilekua:** Gallarta.

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** BBVren Zamudioko sukurtsaleko langilea, baina egun horretan egoitza nagusian zegoen. ELA-STV sindikatuaren ordezkaria.

**Egilea:** ETAm

**Heriotza-lekua:** Bilboko BBVn bonba leherrarazita.

**Prozedura:** Bonba leherrarazita egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Egun horretan bertan beste langile bat hil zen: Ramon Iturriondo Garcia. Bi egun geroago, hirugarren langilea: Benicio Alonso Gomez. Beste sei langile zauritu zituen leherketak. Bonba-abisua pasa zen, baina ez zen eraikina husteko astirik izan. ETAm-k atentatuaren autokritika egin zuen eta LABek bat egin zuen greba orokorraren eta manifestazioen deialdiekin.

# 31

## Benicio Alonso Gomez

---

**Atentatuaren data:** 1983/02/05.

**Heriotzaren data:** 1983/02/07.

**Adina:** 51 urte.

**Non jaioa:** Barca (Soria).

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** BBVko langilea, baina ez egoitza nagusikoa.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Basurtoko ospitalean Bilboko BBVren egoitzan bonba baten leherketak eragindako zauriengatik.

**Prozedura:** Bonba leherrarazita egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatuaren egunean beste bi langile hil ziren, Ramon Iturriondo Garcia eta Anibal Alfonso Izquierdo Emperador. Beste sei langile zauritu zituen leherketak. Bonba-abisua pasa zen, baina ez zen eraikina husteko astirik izan. ETAm-k atentatuaren autokritika egin zuen eta LABek bat egin zuen greba orokorraren eta manifestazioen deialdiekin.

# 32

## Julio Segarra Blanco

---

**Data:** 1983/05/04.

**Adina:** 50 urte.

**Non jaioa:** Cabanillas del Campo (Guadalajara).

**Bizilekua:** Bilbo, 1966az geroztik.

**Destinoa:** Basauriko kuarteleko Bigarren Konpainia Mugikorra.

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba (gazteena 8 egun lehenago jaioa).

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionalaren tenientea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** ETaren asmoa tenientea bahitzea zen, gero presoekin trukea egiteko. Horretarako eskuak lotu zizkioten eta ahoa estali, Bilboko Santutxu auzoan dagoen Karmeloko aparkalekuan. Auto baten maletategian sartu behar zuten unean beste Polizia Nazional bat azaldu zen emaztearekin, Maria Dolores Ledo Garciarekin. Bigarren poliziak arauzko pistola atera zuenean, komandoko kideek tiro egin zuten eta hirurak hil zituzten.

**Prozedura:** Bahiketa saiakera eta su-armaz egindako tiroketa.

# 33

## Pedro Barquero Gonzalez

---

**Data:** 1983/05/04.

**Adina:** 30 urte.

**Non jaioa:** Alcalá del Valle (Cadiz).

**Destinoa:** Basauriko kuarteleko Bigarren Konpainia Mugikorra.

**Seme-alabak:** Emaztea haurdun zegoen.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Emazte Maria Dolores Ledo Garcia eta bera Bilboko Santutxu auzoan dagoen Karmeloko aparkalekuan azaldu ziren ETaren komandoa Julio Segarra Blanco, Polizia Nazionaleko tenientea, bahitzen saiatzen ari zen unean. Arauzko pistola atera zuenean, komandoko kideek tiro egin zuten eta hirurak hil zituzten.

**Prozedura:** Su-armaz tirokatuta.

# 34

## Maria Dolores Ledo Garcia

---

**Data:** 1983/05/04.

**Adina:** 25 urte.

**Non jaioa:** Barakaldo (Bizkaia).

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Haurdun zegoen.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Zumalakarregi ikastetxeko irakaslea zen, Bilboko Arabella auzoan.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Senarrarekin, Pedro Barquero Gonzalez Polizia Nazionalarekin, azaldu zen Bilboko Santutxu auzoan dagoen Karmeloko aparkalekuan ETaren komandoa Julio Segarra Blanco, Polizia Nazionaleko tenientea, bahitzen saiatzen ari zen unean. Senarrak arauzko pistola atera zuenean, komandoko kideek tiro egin zuten eta hirurak hil zituzten.

**Prozedura:** Su-armaz tirokatuta.

# 35

## Eduardo Vadillo Vadillo

---

**Atentatuaren data:** 1983/06/14.

**Heriotzaren data:** 1983/06/16.

**Adina:** 59 urte.

**Non jaioa:** Villaba de Losa (Burgos).

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Bi alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Land Rover-Santanaren Bilboko ordezkartzako salmenta-burua.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Basurtoko ospitalean. Bertara eraman zuten Mallabiko (Bizkaia) Trabakua gainean, Berriz eta Markina arteko errepidean, jarritako bonba baten eztandak larri zaurituta.

**Prozedura:** Urrutitik aktibatutako bonbaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** ETAk agiri bat bidali zuen Vadilloren heriotza deitoratuz, atentatuaren helburua zelako Jose Lull Catala teniente koronelari eskolta ematen zion polizia-konboiari eraso egitea. Bonba eztanda eginarazteko unean, biktimaren autoak polizia-autoetako bat aurreratu zuen eta konboia osatzen zuten bi ibilgailuen artean zegoen. Llullen kontrako hirugarren atentatu saiakera zen.

# 36

## Alberto Martin Barrios

---

**Bahiketaren data:** 1983/10/03.

**Heriotzaren data:** 1983/10/18.

**Adina:** 39 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Armadako farmazia-kapitaina.

**Egilea:** ETApn (VIII. asanblada).

**Heriotza-lekua:** Gorpua txabola batean azaldu zen buruan tiro bat eta ahoa estalita zuela, Gal-dakaoko El Gallo bidegurutzetik hurbil.

**Prozedura:** Bahiketa eta su-armaz egindako tiroketa.

37

# Angel Martinez Trilles

---

**Data:** 1983/11/09.

**Adina:** 31 urte.

**Non jaioa:** Oviedo (Asturias).

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Agente komertziala. Legionario paraxutista izandakoa. Bizkai-ko Hermandad de Antiguos Caballeros Legionarios elkarteko kidea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Hermandad de Antiguos Caballeros Legionariosen tabernan, Bilbo Zaharreko Mirasol kondearen plazan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.



# 38

## Mikel Solaun Angulo

---

**Data:** 1984/02/04.

**Adina:** 39 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Bi alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Industria-ingeniaría eta eraikuntza arloko enpresaria lanbidez. ETAko kidea lehendabizi; ETAko kolaboratzailea ondoren. Utzia zuen guztia eta Guardia Zibiltzako etxebizitzaren eraikin batean lehergailu bat zegoela ohartarazi zuen, etxebizitzaren inaugurazio egunean tragediarik gerta ez zedin.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Algorta auzoko (Getxo) Haizea kafetegi-dastalekuan, emaztearen eta alaben aurrean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

39

## Bernardo Perez Sobrino

---

**Data:** 1984/04/02.

**Adina:** 27 urte.

**Non jaioa:** Carrión de Calatrava (Ciudad Real).

**Destinoa:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Bi alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea azken hiru urteetan.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bautista de Uretamendi tabernaren barruan, Bilbon.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Tiroetako batek Lisardo Landeta Olalde, tabernako nagusia, zauritu zuen beso batean eta Basurtoko ospitalean ingresatu zuten.

40

## Antonio Velasco Benito

---

**Data:** 1984/04/21.

**Adina:** 39 urte.

**Non jaioa:** Pedrosilla del Ralo (Salamanca).

**Destinoa:** Zaintza zerbitzua egiten zuen Bilboko Lurralde auzitegian.

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia Zibila.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bilboko Lurralde auzitegiko eraikinaren kanpoaldean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

41

# Alberto Aznar Feix

---

**Data:** 1984/07/02.

**Adina:** 64 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Alaba bat eta seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Erretiroa hartutako Armadako teniente koronela.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bi pertsonak tiro egin zioten etxeke ataria ixten ari zen unean, Portugaleteko Maria Diaz de Haro kalean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatua biktima auzotar batekin eta amarekin, 92 urtekoa, hizketan ari zela gertatu zen; amak konortea galdu zuen, bere semearen erailketaren aurrean.

42

## Carlos Diaz Arcocha

---

**Data:** 1985/03/07.

**Adina:** 52 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Bost seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ertzaintzaren operazio-burua, superintendentea. Armadako teniente koronela. Hiru urtez aritu zen inteligentzia zerbitzuetan, CESIDen, Donostian.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Gasteizko kanpoaldean, Elgorriagako gasolindegiko tabernako aparkalekuan.

**Prozedura:** Lapa-bonbaz egindako atentatua. Lapa-bonba hari batekin gurpilera konektatu zuten, autoa mugitzean bonba aktibatzeke.

43

## Julio Cesar Sanchez Rodriguez

---

**Data:** 1986/10/26.

**Adina:** 31 urte.

**Non jaioa:** Salamanca.

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Bi alaba eta bi seme.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kaporal-burua, 1977tik.

**Destinoa:** Bilboko polizia-etxe nagusian, NANak egiteko bulegoan.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bere etxetik hurbil, Bilboko San Adrian auzoan, eskolako irteeran jaso zituen lau seme-alaben aurrean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 44

## Genaro Garcia de Andoain Larrinaga

---

**Data:** 1986/11/02.

**Adina:** 64 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ertzaintzaren ordezkari nagusi Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko gaietarako. Eusko Jaurlaritzako Trafikoko ordezkari izandakoa. EAJko militantea zen. Sabino Arana batailoiko gudaria izan zen eta preso egon zen 1943ra arte.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Lucio Aginagalde enpresari arabarra askatzeko operazioan. ETAk bahituta zeukan Barazarko leize batean, Gorbeia mendizerran, Zeanuritik gertu. Leize inguruan izan zen tiroketa eta hainbat tiro jaso zituen.

**Prozedura:** Bahiketa eta su-armaz izandako liskarra.

**Datu gehigarriak:** Bahitua onik askatu zuten. Bahitzaileetako bat, Juan Gabirondo Argote, zauritu eta atxilotu egin zuten; beste ETako kide bat ere atxilotu egin zuten; komandoko hirugarren partaideak ihes egin zuen.

45

## Maria Luisa Sanchez Ortega

---

**Data:** 1987/02/19.

**Adina:** 60 urte.

**Non jaioa:** Dima (Bizkaia).

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba, biak langabezian, eta senarra gaixorik zeukan.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Bulego-garbitzailea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Basurtoko ospitalean. Bera aurretik igarotzen ari zen unean, Marzana kaiko (Bilbo) Renault autoen kontzesionario batean jarritako bonbak eztanda egitean eragindako zauriengatik.

**Prozedura:** Atentatua esandako ordua baino lehenago eztanda eginarazitako bonbaz.



# 46

## Cristobal Martin Luengo

---

**Data:** 1987/09/08.

**Adina:** 50 urte.

**Non jaioa:** Valderrodrigo (Salamanca).

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia Zibilaren tenienteordea. Hogei urte inguru zeramatzan Bilbon. 1983tik zeraman Bizkaiko Gobernu Militarrean.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bizileku zuen Arangoiti auzoan, Bilbon.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

47

## Ramon Bañuelos Echevarria

---

**Data:** 1988/10/07.

**Adina:** 33 urte.

**Bizilekua:** Bilboko Txurdinaga auzoa.

**Seme-alabak:** Lau seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Saltzaile ibiltaria.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bizkaiko hiriburuko Txurdinaga auzoa, ibilgailua martxan jarri zuen unean.

**Prozedura:** Bonba-lapaz egindako atentatua.

48

## Cristobal Diaz Garcia

---

**Data:** 1988/10/29.

**Adina:** 36 urte.

**Non jaioa:** Montellano (Sevilla).

**Bizilekua:** Bilbo.

**Destinoa:** Santutxu auzoko Poliziaren polizia-etxea, Bilbon.

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Basurtoko ospitalean (Bilbo), Santutxuko polizia-etxean guardia egiten ari zela eragin zizkioten zauriengatik ebakuntza egiten ari zitzaizkionean.

**Prozedura:** Su-armaz atentatua, mira teleskopikodun fusilarekin.

# 49

## Juan Bautista Castellanos Martin

---

**Data:** 1989/04/25.

**Adina:** 56 urte.

**Non jaioa:** Abadia (Caceres).

**Bizilekua:** Bilbo, 1954az geroztik.

**Seme-alabak:** Bi alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Armadako Farmazia Kidegoko tenientea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bilboko etxeko garajetik ateratzen ari zen unean, auto batek bidea eragotzi zion.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 50

## Luis Hortelano Garcia

---

**Data:** 1989/05/24.

**Adina:** 33 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Bi seme.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ertzaintzaren Lehergailuak Indargabetzeko Unitate-buru; Poliziaren kidegotik zetorren. Kriminologoa; lehenengo promoziokoa.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Peugeot enpresatik gertu bonba-auto bat indargabetzen ari zen, Bilboko Zorrotxa auzoan.

**Prozedura:** Bonba-autoz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Tedaxeko bi polizia hil ziren berarekin batera: Jose Maria Sanchez Garcia eta Manuel Jodar Cabrera, eta beste hamaika pertsona zauritu zituen eztrandak: su-hiltzaile bat, sei zibil eta lau polizia.

51

## Jose Maria Sanchez Garcia

---

**Data:** 1989/05/24.

**Adina:** 34 urte.

**Non jaioa:** Galinduste (Salamanca).

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Tedaxetako polizia nazionala.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Peugeot enpresatik gertu bonba-auto bat indargabetzen ari zen, Bilboko Zorrotxa auzoan.

**Prozedura:** Bonba-autoz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Luis Hortelano Garcia ertzaina eta Manuel Jodar Cabrera Tedaxetako polizia hil ziren atentatu berean. Beste hamaika pertsona zauritu zituen eztandak: su-hiltzaile bat, sei zibil eta lau polizia.

# 52

## Manuel Jodar Cabrera

---

**Data:** 1989/05/24.

**Adina:** 35 urte.

**Non jaioa:** Rubite (Granada).

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Tedaxetako polizia nazionala.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Peugeot enpresatik gertu bonba-auto bat indargabetzen ari zen, Bilboko Zorrotxa auzoan.

**Prozedura:** Bonba-autoz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Luis Hortelano Garcia ertzaina eta Jose Maria Sanchez Garcia Tedaxeko polizia hil ziren atentatu berean, eta beste hamaika pertsona zauritu zituen eztandak: su-hiltzaile bat, sei zibil eta lau polizia.

53

## Luis Reina Mesonero

---

**Data:** 1989/09/12.

**Adina:** 61 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Arrain saltzailea, Bilboko hornidura-azokako plazan.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Postontzitik bonba-paketea jasotzean, Bilbon.

**Prozedura:** Bonba-paketez egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** ETAk 2014/09/23an igorritako agiri batean atentatua “akatsa” eta “hutsegite konponezina” izan zela adierazi zuen eta “autokritikarik serioena eta zintzoena” adierazi zuen.



# 54

## Ignacio Bañuelos Lasso

---

**Data:** 1989/11/15.

**Adina:** 26 urte.

**Non jaioa:** Guardo (Palentzia).

**Bizilekua:** Uribarri, Bilbo.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Saltzaile ibiltaria.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Uribarri auzoan, Bilbon.

**Prozedura:** Lapa-bonbaz egindako atentatua. Lehergailua karrozeriara itsatsita zegoen eta kamioiaren motorra martxan jartzean eztanda egin zuen.

55

## Ignacio Urrutia Bilbao

---

**Data:** 1990/06/28.

**Adina:** 74 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bi alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Antiguon (Donostia) loteria-administrazio bat zeukan. Erretiroa hartutako Lurreko armadako infanteria-kapitaina. Ingeniaritza eta Eraikuntza-armamentuko konpainiako (CIAC) kide izan zen.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bere etxetik hurbil, Donostiako Antiguu auzoan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 56

## Jose Manuel Alba Morales

---

**Data:** 1990/09/02.

**Adina:** 22 urte.

**Non jaioa:** Zaragozan, nahiz eta familiako kide asko Kordoban bizi ziren.

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Emaztea haurdun zegoen.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia Zibileko kidea.

**Destinoa:** Guardia Zibilaren zerga-espezialisten konpainia, Bilbon.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bilboko Uribitarteko portuan, bonba-auto batek Guardia Zibilaren instalazioen aurka eztanda egitean.

**Prozedura:** Gidari gabeko bonba-autoz egindako atentatua. ETAko kideek aldapan beheara bultzatu zuten Guardia Zibilaren posturantz eta urrutitik leherrarazi zuten.

**Datu gehigarriak:** Eztanda ondu Luis Alberto Sanchez Garcia oinezkoa hil zen eta zaurituta geratu ziren bi udal-funtzionario, Anselmo Amezaga Regulez eta Julio Fernandez Fernandez; oinezko bat, Mikel Suquia Mendinueta; eta Guardia Zibil bat, Juan Carlos Calzada Martin.

57

## Luis Alberto Sanchez Garcia

---

**Data:** 1990/09/02.

**Adina:** 28 urte.

**Non jaioa:** Barakaldo (Bizkaia).

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bilboko Uribitarteko portuan. Biktimari autoa geratu egin zitzaion eta hura konpontzen saiatzen ari zen TAOko bi langilek lagunduta. Gaztea hil zuen eztandak TAOko langileak zauritu zituen.

**Prozedura:** Gidari gabeko bonba-autoz egindako atentatua. ETAko kideek aldapa behera bulztatu zuten Guardia Zibilen posturantz eta urrutitik leherrarazi zuten.

**Datu gehigarriak:** Eztandaren ondorioz Jose Manuel Alba Morales Guardia Zibila hil zen eta zaurituta geratu ziren bi udal-funtzionario, Anselmo Amezaga Regulez eta Julio Fernandez Fernandez; oinezko bat, Mikel Suquia Mendinueta; eta Guardia Zibil bat, Juan Carlos Calzada Martin.

# 58

## Isidro Jimenez Dual

---

**Atentatuaren data:** 1991/01/09.

**Heriotzaren data:** 1991/01/11.

**Adina:** 35 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Lau seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Saltzaile ibiltaria.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Basurtoko ospitalean, bi egun lehenago, etxe ondoan, furgoneta martxan jar-tzean eztanda egin zuen bonbak eragindako zauri larrien ondorioz.

**Prozedura:** Ibilgailu azpian itsatsitako lapa-bonbaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Hiru oinezko larri zauritu zituen atentatuak: Marta Recio Pesquera, Araceli Gonzalez Jimenez eta Bienvenido Garcia Roa.

# 59

## Francisco Diaz de Cerio Gomez

---

**Data:** 1991/01/31.

**Adina:** 41 urte.

**Non jaioa:** Barakaldo (Bizkaia).

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Iberdueron lan egiten zuen, kontagailuak ikuskatzen. UGTko afiliatua. Guardia Zibileko kide ohia (1974-1981).

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Etxetik irten zenean, Bilboko Otxarkoaga auzoan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

60

# Manuel Echevarria Echevarria

---

**Data:** 1991/03/21.

**Adina:** 44 urte.

**Bizilekua:** Bilbo.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Saltzaile ibiltaria.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bere furgonetaren barruan, Bilboko Abusu auzoan.

**Prozedura:** Ibilgailuari itsatsitako lapa-bonbaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Eztandak Maria Begoña Arias, 41 urtekoa, zauritu zuen.

# 61

## Alfonso Mentxaka Lejona

---

**Atentatuaren data:** 1991/08/29.

**Heriotzaren data:** 1991/09/01.

**Adina:** 29 urte.

**Non jaioa:** Sondika (Bizkaia).

**Seme-alabak:** Ez zeukan seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ertzaina.

**Destinoa:** Ertzaintzaren Unitate Berezieta Esku-hartze Berezieta Taldea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Basurtoko ospitalean hil zen. Hiru egun lehenago zauritu zuten Bilboko Begoña auzoko Etxebarria parkean.

**Prozedura:** ETako kideak jarraitzeko polizia-operazio batean tiroka izandako liskarrean.

**Datu gehigarriak:** Tiroketan ETako kide bat ere hil zen: Juan Mari Ormazabal Ibarguren "Tturko", eta bi ertzain eta ETako beste kide bat zauritu ziren. Ertzaintzak komandoko bi kide atxilotu zituen.



62

## Fabio Moreno Asla

---

**Data:** 1991/11/07.

**Adina:** Bi urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Antonio Moreno Chica Guardia Zibilaren semea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Aitak kotxean zeramatzan bi seme bikiak igerilekura, Erandioko Tartanga ka-lean lapa-bonbak eztanda egin zuenean.

**Prozedura:** Lapa-bonbaz egindako atentatua. Aitak autoaren azpialdea begiratu zuen, baina bonba kopilotuaren eserleku azpian itsatsita zegoen.

**Datu gehigarriak:** Lehergailuak larri zauritu zituen anaia, Alexander Moreno, eta aita, Guardia Zibil lanetarako ezinduta geratu zelarik.

# 63

## Jose Ansean Castro

---

**Data:** 1992/01/14.

**Adina:** 38 urte.

**Non jaioa:** Lugo.

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Destinoa:** Polizia Nazionaleko Unitate Balioaniztunaren gidaria, Basaurin (Bizkaia).

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Emaztearekin Bilboko Boluetako autobus-geltokian zegoela, Basauriko koartera abiatu aurretik.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatuaren egileen aurka 2006an egin zen epaiketaren ondoko egunean, poliziaren semeak, errifle batez, bere buruaz beste egin zuen, ohean. Tratamendu psikiatrikoa jasotzen zuen atentatuaren egunaz geroztik.

# 64

## Joseba Goikoetxea Asla

---

**Atentatuaren data:** 1993/11/22.

**Heriotzaren data:** 1993/11/26.

**Adina:** 42 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Seme bat eta bi alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ertzaintzaren sarjentu nagusi. Ertzaintzaren Informazio-unitatearen arduradun nagusia 1986tik 1993ra. EAJko kide 17 urte zituenetik. 1975ean eta 1976an atxilotu egin zuten, militantzia-lanagatik. ELA sindikatuko kidea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bilboko Tivoli kalean, semea ikastetxera zeraman unean auto barruan jaso zituena bi tiroen ondorioz egun batzuk koman egon eta gero, Basurtoko ospitalean hil zen. Semea onik atera zen.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

65

## Fernando Jimenez Pascual

---

**Data:** 1994/04/04.

**Adina:** 29 urte.

**Non jaioa:** Barakaldo (Bizkaia).

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia Zibilaren Bigarren guardia.

**Destinoa:** Bizkaiko Gobernu Zibileko zaintza zerbitzua.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bere autoaren barruan, etxe ondoan emaztearen eta alabaren zain zegoela, gidariaren eserlekuaren azpian zegoen objektu bat hartzera zihoan unean.

**Prozedura:** Bonba-lapaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Leherketak oinezko bat ere zauritu zuen: Silvia Gonzalez Chaves.

66

## Rafael Leyva Loro

---

**Data:** 1995/01/13.

**Adina:** 43 urte.

**Non jaioa:** Atarfe (Granada).

**Seme-alabak:** Sei seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea. Unión Federal de Policías-eko kidea.

**Destinoa:** NANA eta pasaporte egiteko Bilboko bulegoetan.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Lantokian, Bilbon.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean larri zauritu zuten Domingo Duran Diez polizia. Hilabete eta erdi Basurtoko Zaintza Berezien Unitatean egin eta gero, tetraplegiko geratu zen. Ondoren, Toledoko Paraplegikoen ospitalean ingresatu zuten urtebetez, baina ezinduta geratu eta zortzi urte beranduago hil egin zen.

67

## Domingo Duran Diez

---

**Atentatuaren data:** 1995/01/13.

**Heriotzaren data:** 2003/03/06, zortzi urte geroago.

**Adina:** 40 urte.

**Non jaioa:** Villar del Rey (Badajoz).

**Bizilekua:** Basauri (Bizkaia).

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Destinoa:** NANA eta pasaportearen egiteko Bilboko bulegoetan.

**Egilea:** ETA.

**Atentatuaren lekua:** Lantokian, Bilbon.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean beste polizia bat hil zen: Rafael Leiva Loro. Hilabete eta erdi Basurtoko Zaintza Berezien Unitatean egin eta gero, tetraplegiko geratu zen. Ondoren, Toledoko Paraplegikoen ospitalean ingresatu zuten urtebetez, baina ezinduta geratu zen. Zortzi urte geroago, Santanderko Marqués de Valdecilla ospitalean hil zen.

68

## Modesto Rico Pasarin

---

**Data:** 1997/02/17.

**Adina:** 33 urte.

**Non jaioa:** Barakaldo (Bizkaia).

**Bizilekua:** Bilboko Santutxu auzoko Reverendo Lasallen, umetatik.

**Seme-alabak:** Ez zeukan seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Destinoa:** Polizia judiziala zen Bizkaiko Probintzia Auzitegian.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Ibilgailuaren azpian jarritako lehergailu batek eztanda egin zuen Santiago Lasalle plazaren eta Menendez eta Pelayo kalearen artean, Bilboko Santutxu auzoan.

**Prozedura:** Gidariaren eserleku azpian jarritako lapa-bomba leherrarazita egindako atentatua.

69

## Luis Andres Samperio Sañudo

---

**Data:** 1997/04/24.

**Adina:** 37 urte.

**Non jaioa:** Santiago de Cartesen jaioa eta Los Corrales de Buelnan hezia (Kantabria).

**Bizilekua:** Deustu (Bilbo).

**Seme-alabak:** Bi alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionalaren inspektorea. Hamalau urte zeramatzan Euskal Autonomia Erkidegoan eta Sindicato Profesional de la Policiako (SPP) idazkari nagusi izan zen.

**Destinoa:** Bilboko Polizia Judizialaren Brigadako Estupefazianteen taldea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Garondoan tirokatu zuten etxetik hurbil, Deustuko auzoko Madariaga etorbidean (Bilbo).

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.



70

## Jose Maria Aguirre Larraona

---

**Data:** 1997/10/13.

**Adina:** 35 urte.

**Non jaioa:** Zalla (Bizkaia).

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ertzaintzako kidea. ELA sindikatuan afiliatuta zegoen.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bilboko Guggenheim Museoaren inguruan tirokatu zuten. Dirudienez, ETako zenbait kide, lehergailu bat lorontzi batean ezkutatuta jartzen saiatzen ari zirenak, identifikatzera zihoanean. Ertzainari haien mugimenduak susmagarriak iruditu zitzaizkion eta zerabilten furgonetaren matrikula faltsua zela egiaztatu zuen.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Bost egun geroago, urriaren 18an, Espainiako errege-erreginek museoa inauguratu behar zuten. ETako kideetako bat bertan atxilotu zuten.

71

## Fernando Buesa Blanco

---

**Data:** 2000/02/22.

**Adina:** 53 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Bi alaba eta seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** EAeko legebiltzarkidea (1984-2000), PSE-EEren bozeramailea Eusko Legebiltzarrean. Arabako PSE-EEren idazkari nagusia. Bere hastapen politikoetan Democracia Cristiana Vascan jardun zen. Gasteizko Udaletxean zinegotzi izan zen (1983-1997), Eusko Jaurlaritzako Lehendakari ordea (1990-1994) eta Arabako Ahalduen Nagusia (1987-1991). Abokatua.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Gasteizen, unibertsitateko campusetik oinez zihoala.

**Prozedura:** Bonba-autoz egindako atentatua, biktimak aurretik igarotzean urrutitik aktibatuta.

**Datu gehigarriak:** Jorge Diez Elorza bizkartzaina ere atentatu berean hil zen eta zenbait oinezko arin zauritu zituen eztandak, beste batzuen artean, 51 urteko emakume bat. Eusko Jaurlaritzak hiru eguneko dolua ezarri zuen. Bera hil eta gero, Fernando Buesa Fundazioa abian jarri zen, 2007an. Gasteizko Araba Arena pabilioiari Fernando Buesa Arena izena jarri zioten 2000ko martxoan.

72

# Javier Mijangos Martinez de Bujo

---

**Data:** 2001/11/23.

**Adina:** 32 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Bizilekua:** Miranda de Ebro (Burgos).

**Seme-alabak:** Hamar hilabeteko semea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ertzaina. UGTra afiliatuta zegoen.

**Destinoa:** Herritarren Segurtasun Unitatea. Beasaingo polizia-etxean hilabete zeraman eta, aurretik, Durangoko polizia-etxean aritu zen.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Tolosako Asuncion klinikan, beste ertzain batekin trafikoa zuzentzen ari zela Beasaingo bidegurutze batean tirokatua izan eta gero.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Ana Isabel Artostegi Legarreta agentea atentatu berean hil zuten.



---

# I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

---

## 2. **GAL, BVE** eta **Triple Ak** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

---

# 1

## David Salvador Bernardo

---

**Data:** 1977/10/07.

**Adina:** 44 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Bizilekua:** Hernani (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Taxilaria.

**Egilea:** Triple A.

**Heriotza-lekua:** Bi tiro eman zizkioten buruan bere taxiaren barruan zegoela, Andoainen (Gipuzkoa).

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Andoain, Astigarraga eta Hernani herriek osatutako "Heriotzaren Triangelua" delakoan gertatutako lehen heriotza da.

# 2

## Jon Lopategi Carrasco

---

**Atentatuaren data:** 1979/08/02.

**Heriotzaren data:** 1979/08/04.

**Adina:** 36 urte.

**Non jaioa:** Matiko auzoan, Bilbo.

**Seme-alabak:** Ez zeukan seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** ETAko kidea. Aturri enpresan eta jatetxe batean lan egin zuen. Valensolen konfinatu zuten eta departamentu mugakideetan egotea debekatu zioten.

**Egilea:** Batallón Vasco Español (BVE).

**Heriotza-lekua:** Auto batean zegoen beste bi pertsonarekin batera Biarrizko hondartzatik hurbil eta beste auto batetik tirokatu zituzten. Koma egoeran geratu zen eta handik bi egunera hil zen.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Lopategirekin metrailatutako autoan zeuden pertsonetako bat, Angel Iturbe, zauritu egin zuten eta bestea, emakume bat, onik atera zen.

# 3

## Yolanda Gonzalez Martin

---

**Data:** 1980/02/02.

**Adina:** 19 urte.

**Non jaioa:** Deustu, Bilbo.

**Bizilekua:** Aluche auzoa, Madril.

**Seme-alabak:** Ez zeukan seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Elektronika ikaslea Vallecasko Lanbide Heziketako zentroan, Madrilen. Ikasleen Koordinakundeko militante aktiboa. Partido Socialista de los Trabajadores alderdiko kidea.

**Egilea:** Batallón Vasco Español (BVE).

**Heriotza-lekua:** Bere etxean bahitu zuten eta Valdeiglesiaseko zelai batean azaldu zen, Madrilgo kanpoaldean, buruan tiro bat zuela.

**Prozedura:** Bahiketa, legez kanpoko galdeketa eta hilketa su-armekin.

**Datu gehigarriak:** Batallón Vasco Español (BVE) bere gain hartu zuen erailketa. Egileak epai-tuak eta zigortuak izan ziren. Epaiaren arabera, "bahituta eduki zuten denboran galdekatu, egurtu eta torturatu egin zuten. Emilio Hellin Morok bi tiro eman zizkion buruan. Gero Ignacio Abadek azken tiroa eman zion".



# 4

## Antonio Contreras Gabarri

---

**Data:** 1980/07/23.

**Adina:** 11 urte.

**Non jaioa:** Tolosa.

**Bizilekua:** Bilbo.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ikaslea. 17 urteko Maria Concepcionen neba.

**Egilea:** Triple A

**Heriotza-lekua:** Iturriaga ikastola-hurtzaindegiaren ondoan zegoela, Bilboko Ametzola plazan.

**Prozedura:** Bonba leherrarazita egindako atentatua. Iturri batzuen arabera, bonba leiho batean jarri zuten (Gernikako seme-alabak, 2010, 307. or.); beste batzuen arabera (Mikel Aramendi, Gara 2011/01/27) edukiontzi batean zegoen.

**Datu gehigarriak:** Arreba Maria Concepcion eta Anastasio Leal Cerradilla, garbiketako udal-lan-gilea ere hil zituen leherketak. Terrorismoaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak 2008an eginda-ko "Taldea inkontrolatuek, eskuin muturreko taldeek eta GALEk eragindako terrorismoaren biktimei buruzko txostenak" jasotzen du kasua.

# 5

## Maria Concepcion Contreras Gabarri

---

**Data:** 1980/07/23.

**Adina:** 17 urte.

**Non jaioa:** Burgos.

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Haurdun zegoen, erditzear.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Hamaika urteko Antonioren arreba.

**Egilea:** Triple A.

**Heriotza-lekua:** Iturriaga ikastola-hurtzaindegiaren ondoan zegoela, Bilboko Ametzola plazan.

**Prozedura:** Bonba leherrarazita egindako atentatua. Iturri batzuen arabera, bonba leiho batean jarri zuten (Gernikako seme-alabak, 2010, 307. or.); beste batzuen arabera (Mikel Aramendi, Gara 2011/01/27) edukiontzi batean zegoen.

**Datu gehigarriak:** Neba Antonio eta Anastasio Leal Cerradilla, garbiketako udal-langilea ere hil zituen leherketak. Terrorismoaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak 2008an egindako "Talde inkontrolatuek, eskuin muturreko taldeek eta GALek eragindako terrorismoaren biktimei buruzko txostenak" jasotzen du kasua.

# 6

## Anastasio Leal Cerradilla

---

**Data:** 1980/07/23.

**Adina:** 58 urte.

**Non jaioa:** Caceres.

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Hiru alaba eta bi seme.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Garbiketako udal-langilea. Confederación de Sindicatos Unitarios de Trabajadores (CSUT) sindikatuko kidea zen.

**Egilea:** Triple A.

**Heriotza-lekua:** Iturriaga ikastola-hurtzaindegiaren ondoan zegoela, Bilboko Ametzola plazan.

**Prozedura:** Bonba leherrarazita egindako atentatua. Iturri batzuen arabera, bonba leiho batean jarri zuten (Gernikako seme-alabak, 2010, 307. or.); beste batzuen arabera (Mikel Aramendi, Gara 2011/01/27) edukiontzi batean zegoen.

**Datu gehigarriak:** Hildako langilearen alabak El País egunkarian zera adierazi zuen: "Bage-nekien lehergailua ez zutela haren aurka jarri, baina min gehien ematen didana egileak ez harapatu izana da". Horrez gain, gogorarazi zuen Poliziak ez zuela atentatua ikertu eta, komunikabideen oihartzuna igaro ondoren, guztia ahaztu zela (El País, 2010/03/21). Terrorismoaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak 2008an egindako "Talde inkontrolatuek, eskuin muturreko taldeek eta GALek eragindako terrorismoaren biktimei buruzko txostenak" jasotzen du kasua.

7

## Tomas Perez Revilla

---

**Atentatuaren data:** 1984/06/15.

**Heriotzaren data:** 1984/07/28.

**Adina:** 47 urte.

**Non jaioa:** Matiko auzoa, Bilbo.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** ETAko kidea. Errefuxiatu-karta zuen. Frantziako hainbat departamentutan konfinatuta egon zen eta Mexikon eta Venezuelan ere izan zen.

**Egilea:** GAL.

**Heriotza-lekua:** Bordeleko ospitale batean. 43 egun lehenago larri zauritu zuten Biarritzen beste errefuxiatu batekin oinez zihoanean, motozikleta batean jarritako lehergailu bat leherrarazita.

**Prozedura:** Urrutitik aktibatutako bomba-motoz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Roman Orbe Etxeberria, 47 urtekoa, atentatu berean zauritu zuten eta %66ko ezintasun orokor partzialarekin geratu zen. Perez Revillaren emazte Feli Ziluaga Arratek zauri larriak jasan zituen BVEk, senarraren eta semeetako baten aurrean, egindako beste atentatu batean, 1976/03/21ean.

# 8

## Santiago Brouard Perez

---

**Data:** 1984/11/20.

**Adina:** 65 urte.

**Non jaioa:** Lekeitio (Bizkaia).

**Seme-alabak:** Bi alaba eta seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Mediku pediatria. Herri Alderdi Sozialista Iraultzailearen (HASI) presidente izan zen, Bilboko Udaleko alkateordea, Bizkaiko Batzar Nagusietako kidea, Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkidea eta senataria Herri Batasuna ordezkatuz.

**Egilea:** Coviteren arabera, GAL. Epaiketan ez zen frogatu Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL) taldearen erantzukizuna, gertakariaren unean taldeak ez baitzuen bere gain hartu atentatua. Hala ere, akusatu nagusia 1984/07/10ean Consolation tabernaren aurka GAL taldeak bere gain hartutako atentatuagatik epaitu zuten.

**Heriotza-lekua:** Tiro egin ziotenean, sei hilabeteko haurra artatzen ari zen Bilboko kontsultan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 9

## Josu Muguruza Guarrotxena

---

**Data:** 1989/11/20.

**Adina:** 31 urte.

**Non jaioa:** Errekalde auzoa, Bilbo.

**Seme-alabak:** Neska-laguna haurdun zegoen; bere alaba 16 egun geroago jaio zen.

**LANBIDEA, KARGUA, BESTELAKOAK:** Egin egunkariko erredaktore-burua. Diputatuen Kongresurako diputatu hautatu zuten HBtik. Madrilgo Alcalá hotelean zegoen afaltzen Espainiako Kongresuko diputatu-agiria jasotzen.

**Egilea:** GALEk hartu zuen bere gain, baina Bases Autónomas taldea jo zuten susmagarritzat. Hasiera batean, egileak Grupos Antiterroristas Nacionales de Españako (GANE) kideak zirela planteatu zuen fiskaltzak. Bestalde, 1996ko maiatzaren 2an, Garzon epaileak Alcalá hoteleko atentatuarekin lotzen zuen faxista bat atxilotu zuten; haren arabera, CESID azpilanean aritu zen atentatua antolatzeke. Pertsona hori argitu gabe geratu ziren inguruabarretan hil zen 1996/08/02an.

**Heriotza-lekua:** Bi pertsona sartu ziren eta mahai baten zeuden pertsonen aurka tiro egin zuten; mahai horretan zeuden hildakoa eta ezker abertzaleko zenbait diputatu, senatari, abokatu eta kazetari.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Bertan zegoen Iñaki Esnaola ere larri zauritu zuten. Ricardo Saenz de Ynes-trillas absolbitu egin zuten epaiketan eta Angel Ducerri, polizia ohiari, 99 urteko kartzela zigorra ezarri zioten 1993ko martxoaren 25eko epaian.

---

# I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

---

## 3. **Segurtasun-indarrek** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

---

# 1

## Francisco Javier Batarrita Elespuru

---

**Data:** 1961/03/27.

**Adina:** 41 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Bederatzi hilabeteko seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Industrialaria. Bere enpresa zeukan.

**Egilea:** Polizia eta Guardia Zibila.

**Heriotza-lekua:** Lau tiro jaso zituen aurpegian eta beste berrogei gorputzean beste bi lagunekin Peugeot markako autoan zihoala, Gasteizko bidea eta Bilboko sarrera lotzen dituen Boluetako bidegurutzean.

**Prozedura:** Su-armaz tirokatuta.

**Datu gehigarriak:** ETAko kideekin nahastu zituzten, zehazki Julen Madariagarekin. Bi egun geroago, Poliziak ohar ofizial bat argitaratu zuen: "Gizakiok akatsak egiten ditugu, akats horiek, batzuetan, ondorio hain mingarriak badituzte ere" (El Correo). Antonio Ibañez Freirek, Bizkaiko Gobernadore Zibilak gertakaria "autoaren akats bati" eta "tiro batek ihes" egin izanari egotzi zion. Haatik, autoa bala zuloz beteta geratu zen. Batarritarekin batera zihoazen: Jose Antonio Martin Ballesteros, larri zauritu eta elbarri geratu zena, eta Fernando Larizgoitia Mimenza. Hamar polizia, inspektore eta guardia zibil epaitu zituzten gertakari harengatik, baina errugabe jo zituzten. Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez..



# 2

## Angel Esparta Basterra

---

**Data:** 1975/11/25.

**Adina:** 28 urte.

**Non jaioa:** Dima (Bizkaia).

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Ez zeukan seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Penintsula eta Kanariar Uharteak lotzen zituen Pinillos ontzi-enpresan egiten zuen lan. Europan zehar bidaiatzea gustuko zuen eta ohikoa zuen auto-stop eginez batetik bestera joatea.

**Egilea:** Guardia zibila.

**Heriotza-lekua:** Auto-stop eginez Madrildik Bilbora zihoan, baina gidariak, Bergarara zihoalako, Legutiora doan bidegurutzean utzi zuen (Araba).

**Prozedura:** Su-armaz tirokatuta.

**Datu gehigarriak:** Guardia Zibilak, gertakarien hurrengo egunean, gaztearen familiaren etxera deitu zuen "istripu bat" izan zuela eta Gasteizko ospitalean zegoela esateko. Biktimaren osaba bat eta lehengusu bat bertaratu ziren eta udaltzain batek esan zien hil egin zela, baina ez zela istripua izan, Guardia Zibilek tiro egin ziotela baizik, aurreko egunean Oiartzungo alkate Antonio Etxeberria Albizuren kontrako atentatuaren egile batekin nahastu zutelako. Alkatearen alargunak baztertu egin zuen Angel Esparta senarraren hiltzailea zenik. Garai hartan ibilgailuekin eta kontrolekin lotutako antzerako kasuetan, 1970a eta 1982a bitartean, 19 pertsona hil eta 31 zauritu ziren. Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

# 3

## Francisco Nuñez Fernandez

---

**Gertakarien data:** 1977/05/17.

**Heriotzaren data:** 1977/05/30.

**Adina:** 38 urte.

**Non jaioa:** Barakaldo (Bizkaia).

**Bizilekua:** Bilbo.

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Matematika irakaslea.

**Egilea:** Kalez jantzitako polizia armatuak.

**Heriotza-lekua:** Hamahiru egun Bilbon ospitalean egon eta gero.

**Prozedura:** Egun batzuk lehenago, amnistiaren aldeko manifestazio batean, Bilboko etxeko atarian eta alabaren aurrean, Poliziak eman zizkion kolpeak direla-eta Guardia epaitegian salaketa jarri ondoren, indarrez errizino-olioa eta koñaka edatera behartu zuten. Horrek urdaila suntsitu zion.

**Datu gehigarriak:** Bilboko Polizia Buruzagitza Nagusiko idazkari nagusiak ukatu egin zituen biktimak salatutako gertakari guztiak. Haatik, Bilboko ospitaleko Fariñas doktoreak, 1977/06/02ko El País egunkarian azaltzen duenez biktima gaixorik zegoela eta hil ondoren artatu zuenak, argitara eman zuen ospitalera eraman zutenean kolpeen aztarnak zituela bizkarrean eta ipurmasailetan. Hil eta handik gutxira, polizia bat joan zen haren etxera alargunari dirua eskaintzera. Hark, ordea, uko egin zion. 2000. urtean, Ines Nuñez, biktimaren alaba, Bizkaiko Gobernu Zibilera bertaratu zen 1999an onartutako Terrorismoaren biktimen legearen barruan kontuan har zezaten eskatzeko. Egun horretan bertan, arratsaldez, ezezagun batek, telefonoz, heriotza mehatxuak egin zizkien berari eta amari. Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

# 4

## Efren Torres Abrisqueta

---

**Data:** 1978/01/24.

**Adina:** 18 urte.

**Non jaioa:** Barakaldo (Bizkaia).

**Bizilekua:** Bilbo.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ikaslea.

**Egilea:** Guardia Zibila.

**Heriotza-lekua:** Bilboko Buia auzoan (ABC, 1978/01/25).

**Prozedura:** Su-armaz tirokatuta.

**Datu gehigarriak:** Ibilgailuan zihoazen beste bi pertsonak, Pablo Ramirez Lizarri, 19 urtekoa, eta Roberto Hernando Herrero, 17 urtekoa, balaz zauritu zituzten; Roberto Hernando Herrero, oso larri. Guardia Zibilak zihoazen ibilgailua lapurtu izana egotzi zien. Javier Saenz de Cosculluelak, garai hartan PSOEko diputatu eta ondoren Felipe Gonzalezen gobernuan ministro izango zenak, aipamen hau egin zuen Barne ministerioaren batzordearen aurrean: "kontrolletako liskar larri horiek, ez dira bizitzeko eskubidea arriskuan jartzen duten aldez aurretik izandako erasoei erantzuten dieten salbuespenezko egoerak". Diputatuaren aburuz, ekintza justifika ezinak dira "baita gelditzeko agindu bati men ez egiteko arrazoi txiki edo ñimiñoak baleude ere". Are gehiago esan zuen: "Praktikan, lhes-legea izendatu dudan hori, exekuzio bat da, besterik gabe". (Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzaren Motibazio politikoko indarkeriak eragindako urraketan biktimak txostena).

# 5

## Francisco Caballero Quijera

---

**Data:** 1979/11/06.

**Adina:** 24 urte.

**Non jaioa:** Muelas del Pan (Zamora).

**Bizilekua:** Ortuella (Bizkaia).

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Alderdi Komunistako (PCE) kidea.

**Egilea:** Kale-jantzian zeuden poliziak.

**Heriotza-lekua:** Furgoneta batean zihoan Las Cortes auzotik, kale-jantzian zeuden poliziek tiro egin ziotenean (lepoaren atzealdean). Harekin zihoana zauritu egin zuten.

**Prozedura:** Su-armaz tirokatuta.

**Datu gehigarriak:** ABCk 1979/11/7an zauritutako pertsonaren testigantza jaso zuen: "Ez genuen poliziarik ikusi, ezta gelditzeko agindua ematen ari zitzaigun inor ere. Bi pertsona bakarrik ikusi genituen, kale-jantzian, ibilgailuaren atzetik korrika. Ondoren, tiroka ari zitzaizkigula ohartu ginen, eta makurtu egin ginen. Berandu izan zen". Greba orokorra deitu zen gertaera salatzeke, eta Ortuellako udalbatzak aho batez erabaki zuen Francisco Caballeroren hiletara joatea. Kasua jasota dago Motibazio politikoko indarkeriak eragindako urraketen biktimak, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzaren 2008ko ekaineko txostenean.

# 6

## Domingo Hernando Garcia

---

**Data:** 1980/07/30.

**Adina:** 17 urte.

**Non jaioa:** Barakaldo (Bizkaia).

**Bizilekua:** Otxarkoaga, Bilbo.

**Seme-alabak:** Ez zeukan seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:**

**Egilea:** Kale-jantziz zegoen Polizia Nazionalea, Logroñoeko Erreserbako Lehenengo Konpainiakoa.

**Heriotza-lekua:** Bilboko Gorteak kaleko Yale klubaren irteeran.

**Prozedura:** Su-armaz buruan tiro eginda.

**Datu gehigarriak:** Polizia nazionala "berehala ihesi abiatu zen" (El País, 1980/07/31). Gobernu-ko agintariek polizia nazionala atxilotzeko agindu zuten. Ez da kasu bakarra. Urte horietan, ez kasu gutxitan, maila pribatuan gertatzen ziren liskar edo eztabaidak indarra inongo zilegitasunik gabe erabiliz amaitzen ziren eta, kasu honetan bezala, heriotza batekin. Kalez jantzitako poliziek 13 pertsona hil zituzten Trantsizioan, Euskadin eta Nafarroan, gehienak ostalaritzako establezimenduetan, arauzko armekin eta zerbitzuz kanpora zeudela Kasua jasota dago Motibazio politikoko indarkeriak eragindako urraketan biktimak, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzaren 2008ko ekaineko txostenean.

# 7

## Luis Quintana Monasterio

---

**Data:** 1980/09/06.

**Adina:** 46 urte.

**Bizilekua:** Barakaldo (Bizkaia).

**Lanbidea, kargua, beste batzuk:** Babcock Wilcoxeke langilea. PSE-PSOeko militantea. UGT sindikatuan afiliatuta zegoen. Barakaldo futbol-taldeko jokalaria ohia.

**Egiletza:** Kalez jantzitako polizia bat.

**Lekua:** Bilboko Gorteetako Aintzira kalean, Harrobi plazarantz.

**Prozedura:** Su-armaz egindako tiroa.

**Datu gehiago:** Poliziaren tiroek hiru pertsona zauritu zituzten. Las Vegas tabernako jabeak eta zenbait bezerok 1980/09/07an *El País*i kontatu ziotenez, erasotzaileak bi emakume jipoitu zituen, eta bati lepoan ipini zion pistola. Pertsona batzuek gogor egin ziotenean, ez zuen identifikazio-plakarik erakutsi nahi izan eta tiro egin zuen airera, "Denok hilko zaituztet" garrasika. Aintzira kalean ihesi zihoala, tiro batzuk jo zituen jendearen aldera. Haietako batek hil zuen Luis Quintana. Kalez jantzitako poliziek 13 pertsona hil zituzten Trantsizioan, Euskadin eta Nafarroan, gehienak ostalaritzako establezimenduetan, arauzko armekin eta zerbitzuz kanpora zeudela.

---

## I. Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

---

### 4. **Egiletza argitu gabe duten urraketak eta bestelakoak**

---

# 1

## Valeriano Olabarria Campillo

---

**Data:** 1981/01/05.

**Adina:** 58 urte.

**Non jaioa:** Galdames (Bizkaia).

**Bizilekua:** Bilbo.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Kutxa gotorretan espezializatutako Arcas Zubicaray enpresako langilea. Bertan zegoen, aldizkako azterketa egiteko.

**Egilea:** Ezezaguna.

**Heriotza-lekua:** Bizkaiko Aurrezki Kutxan, Guridi Musikariaren Plazan, Zurbaran auzoan, Bilbon.

**Prozedura:** Bi lapurrek tiro egin eta bizkarrean zauritu zuten, ezkerreko saihetsean. 700.000 pezeta eraman zituzten.

**Datu gehigarriak:** Lapurrak, zeinak oso urduri agertzen baitziren, jaka beltzez jantzita zeuden, eta kanoiak ebakitako eskopetak zeramatzaten. Antza denez, lehenengo ihes egindako tiro bategen erakusmahaian errebotatu zuen, eta bigarren batek Valeriano Olabarria Campillo jo zuen. Lekukoen arabera, "lehenengoaren ondoren izan zen, eta tiro beste lapurrak egin zuen, zeinak urduritasunak eraginda senezko erreakzioa izango baitzuen eta eskopetaren katua sakatuko baitzuen" (El País, 1981/01/06). Biktima ez dago jasota AVTren zerrendetan, ez Fundación Víctimas del Terrorismo fundazioaren zerrendetan, ez Vidas Rotas eta Euskal Herria y la Libertad liburuetan, ezta Informe Forondan ere. Espainiako Barne Ministerioak biktima bezala errekonozitu zuen.



# 2

## Ovidio Ferreira Martin

---

**Data:** 1981/07/10.

**Adina:** 29 urte.

**Non jaioa:** Espeja (Salamanca).

**Bizilekua:** Bilbo.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Bidaia-agentzia batean egiten zuen lan, baina oporretan zegoen. Egun horretan amaren ordeaz ari zen Santiago plazan egunkariak banatzen eta saltzen.

**Egilea:** ?

**Heriotza-lekua:** Basurtoko ospitalean. Lau egun lehenago, Barrenkale Barrena kalean (Bilboko Alde Zaharra) egunkariak banatzen ari zela zauritu zuten polizia ustezko ETAkide batzuk jazartzen ari zen unean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako bi tiro jaso zituen polizia eta ustezko ETako kideak elkarren aurka ari zirela.

**Datu gehigarriak:** Toki berean zauritu zuten Aurora Mugica, 48 urtekoa. Dirudienez, Basauriko geltokian egindako atentatuan Joaquin Gorjon Gonzalez erretiratutako guardia zibila hil zuten pertsonen atzetik zihoazen poliziak. Tiroketan, aipatutako zibilez gain, Sebastian Etxaniz Alkorta ETako kidea ere zauritu zuten, nahiz eta ihes egitea lortu zuen. Heriotza hori eragin zuten tiroen jatorriaren inguruan bertsio kontrajarriak izan ziren. Barne Ministerioak terrorismoaren biktimatzat hartzen du.



---

## II. Behar beste argitu ez diren **kasuak**

---

# 1

## Txabi Etxebarrieta Ortiz

---

**Data:** 1968/06/07

**Adina:** 23 urte.

**Non jaioa:** Bilbo (Bizkaia)

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ekonomia Zientzietan lizentziaduna; bere promozioko lehenengoa. ETako zuzendaritzako kidea; erakundearen bosgarren biltzarrean hartu zuen parte.

**Egilea:** Guardia Zibila.

**Heriotza-lekua:** Larri zauritu zuten Benta Haundin, Tolosako erdigunetik kilometro batera (Gipuzkoa); herri horretako klinikara eraman zuten, eta ospitaleratu eta minutu gutxitara hil zen.

**Prozedura:** Su-arma batez.

**Datu gehigarriak:** Kasu honetan, oraindik ere argitu gabeko gauza asko dago eta bertsio kontrajarriak daude. Txabi Etxebarrieta eta Iñaki Sarasketa ETako kideak auto batean zihoazela, Guardia Zibilaren motorista batek gelditzeko agindua eman zien Aduna eta Villabona artean; orduan, guardia zibilak ikusi zuen ibilgailuaren agiriak eta motor- eta txasis-zenbakia ez zetozeela bat. Une horretan, Txabi Etxebarrietak tiro egin zion Jose Antonio Pardines Arcay agenteari eta bertan hil zen. Ihesaldian, Tolosako laguntzaile baten etxera jo zuten babes bila; baina etxebizitza horrek segurtasun-baldintzak betetzen zituen ziur ez zeudenez, alde egitea erabaki zuten. Guardia Zibilaren kontrol batean atzeman zituzten Benta Haundin. Une horretatik aurrera, gertatu zenari buruzko bi bertsio daude. Guardia Zibilaren bertsioak dio Etxebarrietak bere pistola ateratzea lortu zuela, baina eskutatik kentzea lortu zutela tiro egin aurretik; Sarasketak bere armarekin tiro egin zuenean hasi zela tiroketa, eta orduan zauritu zela larri Etxebarrieta. Beste bertsio batzuen arabera, ordea, Txabi Etxabarrietaren burua horma baten kontra kolpatu zuten, eta zutitzen saiatzen ari zenean, erdi konorterik gabe, distantzia laburrera egin zion tiro guardia zibil batek.

# 2

## Rafael Quilez Rodriguez

---

**Data:** 1973/09/07.

**Non jaioa:** Puerto Rico.

**Egilea:** Guardia Zibila.

**Heriotza-lekua:** Bilboko Abusu auzoan jarritako Guardia Zibilaren kontrol batean.

**Prozedura:** Su-armaz tirokatuta.

**Datu gehigarriak:** Argibide urria eta bertsio kontrajarriak dituen kasua da. Bertsio ofizialaren arabera, hildakoa kontrolean zeuden bi agenteak zapaltzen saiatu zen. Gernikako seme-alabak-ek, 300. orrialdean eranstean du, Guardia Zibilak metrailatu zuela seinaleztapen zalantzagarria zuen kontrol batean. 1970etik 1982ra, 19 pertsona hil eta 31 zauritu ziren poliziaren tiroen ondorioz errepideetako kontroletan.

# 3

## Jesus Urien Orbegozo

---

**Data:** 1981/03/27.

**Adina:** 21 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Derrigorrezko soldadutza egiten ari zen Ekitazio konpainian, Madrilén.

**Egilea:** Argitu gabe.

**Heriotza-lekua:** Loyozuelako tren-geltokian, Madrilgo Autonomia Erkidegoaren iparraldean, buruan tiro eginda.

**Prozedura:** Su-armaz tirokatuta.

**Datu gehigarriak:** Argibide urria eta bertsio desberdinak dituen kasua da. Bertsio ofizialaren arabera, bere buruaz beste egin zuen bere soldadu-taldetik ihes egin eta gero, "ohartu zelako ETA-rekin ustez loturak zeuzkala susmatzen zutela" (El País, 1981/03/28). Ordea, 1981/03/28ko El Periódico-k bi bertsio jarri zituen mahai gainean. Lehendabizikoan, bi agente bere atzetik atera ziren tren-geltokian. Eta, bigarrenean, teniente batek ere parte hartu zuen; bertsio horretan, "kanpoaldeko eremu batean korrika" zihoala esan zuten. "Hura jazarri eta gero, sakonune batean aurkitu zuten". Bi bertsioek bukaera bera dute.

# 4

## Pablo Gonzalez Larrazabal

---

**Data:** 1984/11/23.

**Adina:** 53 urte.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Euskalduna ontziolako langilea.

**Egilea:** Poliziak kargatu zuenean bihotzekoak jota.

**Heriotza-lekua:** Ontziolen eremuaren barruan Bilboko itsasadarrean zegoen ontzi baten barruan.

**Prozedura:** Poliziaren benetako tiroetatik bere burua babesten saiatzen ari zen unean.

**Datu gehigarriak:** Bertsio desberdinak daude eztabaidan. Bertsio ofizialaren arabera, bihotzekoak jota hil zen eta horrek ez zuen loturarik izan poliziaren kargarekin. Beste iturri batzuen arabera, lotura zuzena dago poliziaren jokabidearen eta heriotzaren artean. EFE agentziak jasotako lekukoen adierazpenen arabera, indar publikoak langileen aurka egin zuen “aldeztatik inolako istilurik izan gabe eta inolako abisurik eman gabe”. Poliziaren tanketa batek zaintzailearen etxola eta lantegiko sarrerako hesiaren parte bat eraitsi zituen. “Ez da ustekabeko eta zorigaitzoko gertakari bat bakarrik. Poliziaren basatikeriak bihotzekoa eragin edo azkartu izanaren ustea ez da funtsik gabekoa (...) Ezin daiteke baztertu a priori heriotza horretan poliziak izan dezakeen erantzukizuna eta, are gutxiago, beste grebalari batzuek jasandako zauriei dagokienean” (El País egunkariaren editoriala 1984/11/25). “Pablo, metraileta baten lehendabiziko tiro-segida entzun eta gero, korrika atera eta ezkutatzeko arrapala gainditu behar izan ondoren hil zen. Bihotzak ezin izan zuen jasan (...) Gainera, 20 minutu igaro ziren bihotzekoak jo zionetik Poliziak ambulanzari pasatzen utzi zion arte” (Iñaki Telleria, arotza, ontziolako langilea). Letras para la libertad, Gara 2013/06/29, 168. or.).

# 5

## Xabier Kalparsoro Golmaio

---

**Atxiloketa-eguna:** 1993/09/24.

**Heriotzaren eguna:** 1993/09/26.

**Adina:** 27 urte.

**Non jaioa:** Zumaia (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Seme-alabarik gabe.

**Langabezia, kargua, bestelakoak:** ETAko kidea. Jarraiko liberatu izan zen Gipuzkoan. 1991an, Iparraldera egin zuen ihes, sabotajeetan parte hartzea egotzi ziotelako.

**Egilea:** Ez dago argi.

**Heriotza-lekua:** Basurtuko Ospitalea

**Prozedura:** Hil baino bi egun lehenago larri zauritu zen leiho batetik erorita, Indautxuko polizia-etxean galdekatzen ari zirela.

**Datu gehigarriak:** Kasu honetan, oraindik ere argitu gabeko gauza asko dago eta bertsio kontrajarriak daude. Bigarren solairuko, lurretik 7,95 metrora, 6,5 bider 5,4 metroko artxibo-gelako leiho batetik erori zen Xabier Kalparsoro; han ari ziren galdekatzen. "Frogatutako egitateen" kontaketa jaso denez, gertakari hilgarria izan baino lehentxeago, gazteak garagardo bat eskatu zuen –eskuburdinak jarri gabe zegoen gela horretan– eta "Informazio Brigadako buruak berak bere hozkailuan zuen bat eman zion" (258/00 epaiaren 15. orrialdea). Bigarrenegatik atxilotu zutenean (Durangon), Indautxuko polizia-etxera eraman zuten Bilboko Informazio Brigadako kideek; han ere izan zen beste gertaera eztabaidagarri bat: atxilotuen liburuan ageri den sinadura "ez da atxilotuarena" (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren fiskalburuari idatzia, 1997/07/09). Baldintza nahasiak ere elkartu ziren; esate baterako, Xabier Kalparsorok berak idatzitako gutun bat, non kontatzen duen "atxilotu eta torturatu" egin zutela hilabete lehenago, 1993ko abuztuan; "drogatu eta berriz ere kalean utzi ninduten amu gisa, poliziak nire kontaktuingana eraman nitzan". Lau polizia prozesatu zituen Bizkaiko probintzia-azitegiak 2000. urtean; horietako biri sei hilabeteko zigorra ezarri zuten "heriotza ekarri zuen zuzenbidearen delitua" egin zutela egotzita. 2002an Auzitegi Gorenak kondena murriztu eta ehun mila pezetako isuna jarri zuten "zuzenbidearen delitua" egiteagatik. Zumaiako Udalak, TATEk eta familiak herri-akzio gisa jardun zuten.



# 6

## Jose Antonio Diaz Losada

---

**Data:** 1994/08/09.

**Adina:** 29 urte.

**Bizilekua:** Bizkarbi kalea, Bilboko Errekalde auzoan.

**Seme-alabak:** Hamalau hilabeteko alaba.

**LANBIDEA, KARGUA, BESTELAKOAK:** Igeltsero langabea. Bost aldiz atxilotu zuten, eta droga-trafikoa eta indarkeriaz egindako lapurreta egotzi zitzaizkion.

**Egilea:** Argitu gabe.

**Heriotza-lekua:** Bere etxebizitzaren inguruan, furgoneta Bizkarbi kalean aparkatu ondoren, Bilboko Errekalde auzoan.

**Prozedura:** Su-armaz, errebolber bat, egindako tiro bat.

**Datu gehigarriak:** Argibide urria eta bertsio desberdinak dituen kasua da. ETAK ez du inoiz bere gain hartu atentatu hori, ez egin zen garaian, ezta Zuzen 79n (VascoPress, 2004) argitaratutako atentatuen zerrendaren narkotrafikoarekin lotutako hildakoak eragin zituzten atentatuen atalean ere. Terrorismoaren Biktimen Fundazioak (FVT) eta Belen Pulgar-ek ere ez dute beren zerrendetan sartzen. Hilketa ETARI egozten diotenak Covite eta *Vidas Rotas* dira. Hasierako unetik bertatik, zalantza handiak izan ziren heriotza horren egileen inguruan. Bizkaia komando berregituratuari egotzi zitzaion "zalantzekin", baina "poliziak ez du baztertuko ikerketa lerro bakar bat ere –tartean droga-trafikoarekin zerikusia zuten pertsonen arteko kontu-garbiketa–, balistika txostenaren emaitza jakin arte" (El Mundo, 1994/08/11).

# 7

## Iñigo Cabacas Liceranzu

---

**Gertakarien data:** 2012/04/05.

**Heriotzaren data:** 2012/04/09.

**Adina:** 28 urte.

**Non jaioa:** Basauri (Bizkaia).

**Bizilekua:** Bilbao (Bizkaia).

**Seme-alabak:** Ez zeukan seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Seme bakarra zen. Athletic futbol-taldearen jarraitzailea, Basauriko El Klero Taldean jokatu zuen futboleant, Loiuo taldearekin lehen maila erregionalean eta Amorebieta B taldean bere heriotzera arte. Musikako ikasketak zituen eta Lan-Harremanetan diplomatua. BBVAn lan egiten zuen.

**Egilea:** Ertzaintzaren polizia-operazio baten barruan.

**Heriotza-lekua:** Bilboko María Díaz de Haro kalearen kalezulo batean. San Mames futbol-zelaira joaten diren zaleak San Mames futbol-zelaira joaten direnean betetzen duten ingurunean.

**Prozedura:** Forentseen azterketek erabaki zuten buruan jasotako inpaktua gomazko pilota baten jaurtiketarekin bat zetorrela.

**Datu gehigarriak:** Ebazpen judizialik gabeko kasu bat da. 2012ko apirilaren 5ean, Athleticeko jarraitzaile ugari taldeak Schalke 04ri irabazi ziola ospatzen ari ziren San Mamesen jokatu zen klubaren arteko Eurokopako partidaren ondoren, eta une batean zenbait ertzain hurreratu ziren gertaeren lekura, eremu horretan izan zen indarkeriazko eraso batean zauritu zuten pertsona baten laguntza-eskeari erantzutera. Zenbait lagunek protesta-oihuen artean eta objektuak jaurtiz hartu zituzten ertzainak gertaeren lekura hurbildu zirenean. Egoera horretan, ertzainek egindako kargetako batean, gomazko pilota batek jo zion buruan Iñigo Cabacas Liceranzu gazteari. Gaztea, une horretan, beste pertsona batzuekin batera María Díaz de Haro kaleko kalekako taberna baten kanpoan zegoen. Handik lau egunera hil zen, 2013ko apirilaren 9an, Iñigo Cabacas Liceranzu Basurtuko Ospitalean. Zer gertatu zen argitzeko prozesuak lau urte baino gehiago daratmatza dagoeneko epaitegian; sumarioa oraindik ez da itxi, eta ikerketa judizialaren faseak irekita jarraitzen du. Familiak, adiskideek eta erakundeek zer gertatu zen argitzeko eskatzen jarraitzen dute, eta babes- eta elkartasun-erakusgarri ugari jaso ditu familiak denbora honetan guztian.

Oharra: Iñigo Cabacasen kasua, 2010az gerokoa izanik ere, sartu egin da Udal Erretratu hauetan; izan ere, data horretatik hona gertatu den kasu tamalgarri bakarra da, eta oihartzun handia izan du euskal komunikabideetan, politikan eta Legebiltzarrean. Kontuan hartu da, halaber, Bilboko eta Basauriko udalek beren memoria-ekitaldietan aintzat hartzen dutela.

---

## Erabilitako iturri eta zerrendak

---

- ABC: *ABC Especiales, Todas las víctimas del terror*, [www.abc.es/especiales/eta/victimas](http://www.abc.es/especiales/eta/victimas)
- Alonso, Rogelio, Florencio Domínguez y Marcos García Rey, *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Espasa, Madril, 2010.
- Arartekoa: *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta*, Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia, 2009ko ekaina.
- Argituz (Giza Eskubideen Aldeko Elkarte), [www.argituz.org](http://www.argituz.org)
- Arovite, Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutua (UPV-EHU). [www.arovite.com/bases-de-datos/](http://www.arovite.com/bases-de-datos/)
- AVT (Terrorismoaren Biktimen Elkarte). [www.avt.org](http://www.avt.org)
- Barne Ministerioa. [www.interior.gob.es/](http://www.interior.gob.es/)
- Calleja, Jose Maria; Sanchez-Cuenca, Ignacio: *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima*, Adhara, Madril, 2006.
- Covite (Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarte). [www.covite.org](http://www.covite.org)
- Egin: *Anuarios 1977-1982 eta Anuarios 1982-1997*.
- El Correo. <http://especiales.elcorreo.com/2006/eta/index.html>
- El País: *Las Víctimas*. [www.elpais.com/especial/eta/victimas.html](http://www.elpais.com/especial/eta/victimas.html)
- Euskal Memoria Fundazioa: *Datu-basea*. [www.euskalmemoria.com](http://www.euskalmemoria.com)
- Eusko Jaurlaritz. [www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/)
- Fernando Buesa Blanco Fundazioa (dokumenta- zio- eta ikerketa-zentroa). [www.fundacionfernandobuesa.com](http://www.fundacionfernandobuesa.com)
- Fonseca, Carlos (koord.). 1960. eta 2014. *urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua*. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egina. Eusko Jaurlaritz. 2014ko abendua.
- Giza Eskubideen Zuzendaritza: *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen eta sufrimendu bidegabeen biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritz, 2008. [www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es)
- Juan March Fundazioa. Espainiako trantsizioari buruzko Linz artxiboa. CEACS. [www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/](http://www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/)

- Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Dokumentaziounea. [www.lbfundazioa.org](http://www.lbfundazioa.org)
- Libertad Digital: *In Memoriam: No olvidar lo inolvidable*. [www.blogs.libertaddigital.com/in-memoriam/](http://www.blogs.libertaddigital.com/in-memoriam/)
- Marrodan, Javier; Araluce, Gonzalo; Garcia de Leaniz, Rocio; Jimenez, Maria: *Relatos de plomo. Historia del terrorismo en Navarra 1960-86*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2013.
- Nuñez, Luis (koord.): *Euskal Herria y la Libertad* (8 lib.), Tafalla, Txalaparta, 1993.
- Pulgar Gutierrez, Belen: *Víctimas del Terrorismo: 1968-2004*, Madril, Dykinson, 2004.
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa. [www.fundacionvt.org](http://www.fundacionvt.org)
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa: *Asesinatos de ETA en Álava*. [www.alava.net](http://www.alava.net)
- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza: *Kontrolatu gabeko taldeen, eskuin muturreko taldeen eta GALen terrorismoak eragindako biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. [www.interior.ejgv.euskadi.net/r42440/es/contenidos/informacion/informacion\\_documentos\\_interes/es\\_document/adjuntos/informe%20final.pdf](http://www.interior.ejgv.euskadi.net/r42440/es/contenidos/informacion/informacion_documentos_interes/es_document/adjuntos/informe%20final.pdf)
- Vasco Press Agentzia: "Crónica de documentación y actualidad", 1.176. alea, 2004ko abuztua.
- Zenbait egunkari: *ABC, Berria, Deia, Diario de Noticias, Egin, El Correo, El Diario Vasco, El Mundo, El País, Euskaldunon Egunkaria, Gara, Hitz, La Razón, La Vanguardia, Noticias de Álava, Noticias de Gipuzkoa*.